



ZULOAGA ESKOLAK
C MAILA

ALDAMAR 3A
ALDAMAR 3A eta SAN BIZENTE 2



Egilea eta data: Jose de Goicoa; 1901; jasodura (2003).

Deskribapena

Joera neoklasikoarekin Jose de Goicoa arkitektoak 1901ean egindako proiektua. Zurezko egiturearekin, eta hareharrizko harlanduz eta kareharrizko harlangaitz hornez eraikia. Ez du aldameneko etxadien lerrokadura jarraitzen eta "T" formako oinplanoa eskola patioekin osatzen da. Kantoien definizioaren, eta hormaren eta baoaren arteko proportzioaren ondorioz, eraikinak itxura trinkoa eta astuna erakusten du. Erdisotoko basearen eta hirugarren oineko atikoaren arteko bi altuera nagusiek nolabaiteko mailaketa erakusten du, bai eta oinplanoarekin bat datorren fatxadaren erdialdearen itxura ere. 1912an Juan Rafael Alday udal arkitektoak hainbat aldaketa egin zituen barrualdean. Beranduago, eraikinean jasotze obrak (2003) egin zituzten eta lursaileko patioetako batean markesina ipini zuten. Markesina hau eta aipaturiko jasodura ez daude babestuek.

Babes erregimena.

- 1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.
- 2.- Berariazko erregimena.
 - A.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: 2003an baimendutako jasodura.
 - B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
 - C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: ez.
 - D.- Nahitaezko lehengoratzeak: ez.